



5 urte EGUNKARIA itxi zutenetik

Otsailaren 20an, bost urte beteko dira Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Guardia Zibilak **Egunkaria itxi** zuenetik. 12 lagun epaiketaren zain daude, neurri gabeko zigor eskaerekin: guztira 279 urteko kartzela zigorra eta 235 milioiko isuna.

Bost urte pasatu dira, eta Euskal Herrian ez ezik, Europa mailan ere hainbat erakunde sozial eta politikok Espainiako justizi organoei eta gobernuari Egunkaria auzia artxibatze eskatu diote. Fiskaltzak berak ere frogarik ez duelako kasua artxibatzea eskatu du, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak ez ditu eskaera hauek aintzakotzat hartu eta epaiketarekin jarraitzen du.

Egunkaria itxi eta zigortzea euskalgintza eta euskaltzale guztiak zigortzea dela uste dugu, denok helburu bera dugulako: gure hizkuntzaren alde lan egitea. Horregatik, Tturttur Euskaltzaleon Bilguneak otsailaren 20rako antolatu dituen ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

■ **Oiartzun irratiak**, eguerdiko 12:00etan, Egunkariko itxieran **Xabier Oleaga** auzipetutako kidea **elkarrizketatu** du. FM 107an entzun dezakezu.

■ **Ilunabarreko 20:00etan**, 'Egunkaria libre! Euskalgintza aurrera!' lelopean, denak **Egunkaria irakurtzera** gonbidatzen zaituztegu **Doneztebe plazara**.

Egunkaria auziko auzipetuek egun bererako egin duten deialdiaren berri emateko ere baliatu nahi dugu aukera hau:

■ Goizeko 11:30ean, Andoaingo Martin Ugalde Kultur parkean ekitaldi irekia.

Oiartzun, 2008ko otsailaren 15a

Aitor Etxeberria Txurio
Alkatea